

METAMORFOSIA

Garazi Mugarza Markina

Mallabia

Autobusak naraman bitartean abisatu dit euriak jaistean aterkia beharko dudala. Eta ez dut hartu. Tantak kristalean behera, irristaka eta lehian, nor lehenago heldu, nor bihurtu potologo. Amona zenak zioen euria baino altxor ederragorik ez dagoela. Baina negua da, eta hotz egiten du. Azken geltokiraino bidaiatuko nuke, kristalean labaintzen diren tantei begira eta autobusean, epeletan. Sarri gutxietsi izan ditut autobusak, eta uste dut orain babes nazakeen toki bakarra hauxe dela.

Neguan pare bat kilo hartzen ditut, urtero. Udako berotasuna txokolateak ordezkutzen baitu. Txokolateak asko laguntzen dit, Margaretetik utzi ninduenetik hutsuneak betetzeko balio izan dit beti. Amonak kutsatu zidan hau ere, eta kilopak irabazteko ohitura hau kendu ezinda daramatzat hainbat urte. Txokolatea berotasuna da bai, hutsuneak betetzen dituen kotoia, mahai herrenak finkatzen dituen tolesturiko papera.

Eta kiloak. Konturatu naiz autobusak gogoratze-ko balio duela. Negarra dario ene bizitzari, mal-koa, tanta. Eta euria altxorrik ederrena izanda ere, nik ez daukat babestuko nauen teilaturik, ezta hutsunea beteko duen txokolaterik ere, armairuak hutsik izan baititut azken hilabeteo-tan. Tantek lehian dirauten artean, aterkirik gabe jaitsi naiz autobusetik. Giro freskoa. Hezea. Autobusari begira egon naiz bistatik galdu du-dan arte. Eta gero geltokiko aterpera. Atertzen duenean aterako naiz hemendik.

Duela hiru hilabete inguru jasoko nuen gutu-na. Barruraino heldu zaizkidan gutun gutxi jaso ditut, egia esan. Bata Margaretetik bidali zidana joan eta aste betera, aste txarrak pasa nituen, baina mintzen nauten horiei aurre egiteko inda-rra batu nuen. Hura izan zen lehen gutun bonba, eta bestea hau. Bankuaren karta guztiek ematen didate min, bidaltzen duten bakoitzean gero eta diru gutxiago daukadala aurpegiratzen didatelako, baina hau gehiegizkoa izan zen.

“Apreciado Sr. Arteche:

El motivo de la presente es poner en su conocimiento, en su calidad de arrendatario del piso sito en la calle Zabalbide, que de acuerdo con lo establecido en la vigente legislación de arrendamientos urbanos y en el contrato de renta firmado en su día, es obligación del arrendatario comunicarle la orden de desahucio antes del 19/12/2012 por impago de rentas...”

Etxea kentzeko idatzi zidaten.

Gogoan dut erosi genuen egun hura. Margaretak eta biok lau urte generamatzan eta ezkontzekoak ginen. Bisitatu genuen zortzigarren etxea zen. Txikia baina goxoa, geure magala izango zena ordutik aurrera. Elkarrekin eta bion gustura pintatu genituen hormak, altzairuak Margaretan esku utzi nituen, baita alfondrak eta gortinak ere. Etxetresna elektrikoa neure kontu. Gurasoen etxeak eta gauak pasatzeko hotelak alde batera utzi eta bion artean bete genuen gure etxea, kolorez, trastez eta maitasunez.

Badirudi denboran aurrera egin ahala iragenera hurbiltzen ari naizela, historia eta denbora errepikatu egiten direla. Horrelako zerbait zioen Agustin Hiponakoak ere, historia ziklikoa dela, ez da hasi eta ez da bukatuko. Baina etorkizuna aurrera egitea da, aldatzea eta pasatakoa atzean uztea. Beharbada, oldarraldi bati eskua emanda, pentsa dezaket beldar izateari utzi dion tximeleta naizela. Amonak euria maite zuen, eta, nik, tximeletaren metamorfosia. Arrautza utzi berri-tan, narrasean igarotzen ditu egun batzuetako orduak, sabela betez, lau egun krisalidan igarotzeko, hegoak josten. Horixe da bere bizitza, etengabeko metamorfosia. Eta ni ere hemen, amaren sabela utzi nuen neure etxea betetzeko, eta hura utzi berri dut. Jasotako ukabilkadek

aldatzera behartzen naute, metamorfosia egitera, buruan darabildan samina sendatzera, zauriak amonak sendabelarrekin egindako kremaz igurtzita. Horrek, iraganaz gogora dezakedanak hainbeste ez eragitea dakarkit. Orbaintzen laguntzen dit metamorfosiak, iragana zikatritzatzen. Begi bistako orbanak, itxitako zauri bilakatzten. Ni, txoko hartan bizi izan naizenetik, ez naiz sekula hegoak josteko gauza izan, Margaret izan zitekeen nire hego bakoitza eta nire lehen hegaldia, hark jakin zekien josten. Hala ere pentsamenduak eraldatzea lortu dut, burmuina metamorfizatzea. “Ze haiz orduan, tximeleta edo beldarra?” Kontzientziak ostera ere ez nau bakean uzten.

Atertu du, zorua ito arte busti eta gero. Maleta eskuin eskuan hartu eta kaleak zeharkatzeari ekin diot, helbidea idatzita duen papertxoari begira. Jaka hau neraman soinean, eta helbidea poltsiko honetan sartu zidan azkenengoz besarkatu ninduenean. Etxez aldatzera zihoan, eta gure harremana gehiegi lehortuta zegoen ordu-rako. Hala ere, beti izango nuen beraren laguntza behar nuenean. Beraren kaligrafia landuz idatzita dago helbidea, ez dut ahaztu beraren idazkera, beraren letra. Ez daukat etxerik, presarik ere ez, baina helmuga bat bai, eta paper honetan idatzita dago. “Astiroegi hoa, motel”, “Ez zeukaat indarrik, utz nazak bakean! Ez zegok

inor nire zain”. Duela ordu batzuk neu egon naiz itxaroten, leihotik begira. Hurbiltzen ikusi ditudanean jakin dut neure etxera datozela. Abenduaren hemeretzia gaurko eguna baita.

Ez dut neure txokoa abandonatu nahi izan, “neure heriotzaren txanda duk” pentsatu dut, duela hilabete batzuk emakume batek ere bere burua bota baitzuen etxea kentzera zihoazkion egunean bertan. Ez pentsa, niri ere pasa zait burutik ikusi ditudan unean leihotik jauzi egitea, baina banaiz eusteko lain, banaiz horrenbeste. “Hegorik gabe ez haiz hegan egiteko gauza, Martin. Irten egin behar duk, heure kabuz aldatu, heriotza ez duk metamorfosiaren parte, heriotzarainoko bidea bai ordea”. Eta ideia baztertu dut. “Etxea kenduko didate, baina borrokatzeko indarrrik ez, ez ditek aterik irekita aurkituko” pentsatu dut hurrena. Behebarruko txirrina jo dutenean ez diet aterik ireki, eta hala ere nire txokoko ateraino iristea lortu dute. Din-don. Etsipenean erori naiz. Etsipena basamortua bezalakoa da, lurzoru lehorra, zabala eta hutsa. Hortxe kokatu da nire kontzientzia, etsimortuan. Tira, ez dakit, edo kontzientzia edo ni neu. Din-don. Eta azkenengoz berotu dudan besaulkia bertan utzita ireki diet atea. “Martin Artetxe, etxe bizitza uzteko agindupean gatoz”. Horixe esan dit ilehoriak.

Eskuinalderantz jo dut bidegurutzean. Usoak eta kurloiak, goitik behera erortzen zaizkien ogi apurrekin neguak sabelean sortu dien hutsunea ase nahian. Hauek ere Agustinen ikuspegi bera izango dute bizitzarekiko. Perfekzio guztiak Jainkoarengan aurkitu dituzte. Hura omen da gizakion eta sortu dituen gainerako izaki kontingenteen inperfekzioez erruki den bakarra, laguntzeko ahalegina egiten duena. “Hik ere aise egingo huke bizimodua. Jainkoak zaintzen hauela sinestuta bizi izan bahintz”. Kontzientziak etengabe zigortzen nau, etengabe gogoetetara bultzatzen. Ez diot kasurik egin eta txoriei zuzendu naitzaie. “Ez txoritxook, zerutik ez duk ezer erortzen, baina on degizuela. Gozatu zeuen inozentzia. Gogoratu iruntzi aurretik hogeita hamar aldiz murtxikatzea, inozentziak ertz gehiegi ditik eta”.

Hara, haragitu da Jainkoa. Laurogeita hamalau urte inguru izango ditu gizonak, ezkaratzeko leihotik ogi apurrekin kurloi eta usoak elikatzen dirauenak. “Heuri ere ez dik kalterik egingo zer-bait jateak, goseak hilda hago ta” orain ere, kontzientziak. “Bai, neroni ere komeni zait, arrazoi duk”. Bazkaritan soberan geratu zaion ogia izango da agian. Begira nagoela igarri du, eta berehala itxi du leihoa. “Ez duk delitua ez daukanari jaten ematea, gizona. Egon hadi lasai, aspaldian gose banauk ere ez haut jango” esanez saiatu naiz kontsolatzen.

Eta ez naiz erdi-erditik pasa, txoriak saihestu ditut, otorduak etetea ez da eta edukazio onekoa. Neure helmugara bidean jarraitu dut. Beste bidegurutze bat, orain ezkerretara.

«Martin Artetxe, etxebizitza uzteko agindupean gatoz». Hormaren aurka bota dut gorputza eta lurrean eseri arte irristatzen utzi dut neure burua. Indar handiz egin dut negar. Besoetatik helduta atera naute etxetik hamar minutu inguru pasa direnean. Ilehoriak ondoan utzi dit sarrerako ate ondoan prest neukan maleta eta giltzekin atea itxi ostean alde egin du. Neure bizitokira sartzea debekatu didate, sarrerako ate ondoan utzi naute, botata, eta etxeak ez du jadanik ni jasotzeko baimenik. Ordubete inguru egingo nuen han, ate ondoan, utzi nauten lekuan, eta negarrez. Maleta bat bete dut naizen guztiarekin. Maleta bat. Altxatu eta atzean utzi dut beldarraren azala. Alabaina, ez dut uste tximeleta bihurtu naizenik.

Sudur hodie eztanda egingo zidatela pentsatu dut orduan, mukiek ere ez dute beren etxea utzi nahi. Mukizapiaren bila hasi naiz jakaren eta bakeroen poltsikoetan. Eta baten falta bi. Mukizapia eta helbidea.

Maletak eskuin besoa ahuldu dit. Naizenarekin betetako maleta. Eta beharbada ez naiz asko, baina pisutsua naiz. Puxtari bat neure alde, aspaldiko partez. Aurrera hartu dut hurrengo

bidegurutzean. Azuleju maltzurra zapaldu dut, kasualitatez. Kale bakoitzean egoten da bat, zapaltzen den bakoitzean ura botatzen duena. “Oraingoan heu izan haiz zapaldu duen baldarra” bota dit kontzientziak. Hau izan da azken aurreko bidegurutzea. Hurrengoan ezkerrera hartu eta behebaruko zenbakia bilatzea besterik ez dut izango.

Tren geltoki batean ezagutu nuen. Ile gorria zuen, kizkurra. Biok tren bera hartzera gindoa zen, kasualitatez, baina “makineriaren arazo bartzuk zirela medio” ez genuen ordu horretako trena hartzerik izan eta bi ordu barru iritsiko zena hartu beharko genuen. Geu bakarrik gelditu ginen geltokian. Elkarri begiratu eta barrez hasi ginen. Hurbildu egin zen, “Heuk ere ordu bi egin behar al dituk itxaroten?” esanez, bere ahots finez. Eta neure ondoan eseri zen. Eta maleta lurrean utzi zuen. Beharbada ez zen munduko emakumerik ederrena, baina liluratu egin ninduen eta ez nintzen erantzuteko gauza izan, horrenbeste imajinazio eta hainbat fantasia ero, ile kizkurra, gorria, eta tentsiozko arnasa, arnastua, dardara eta izerdia. “Hi Martin, oraindik ez duk bere izena ere ezagutzen”, kontzientzia, beti bezala momentu ederrenak zapuzten. “Martin naun, urte askotarako. Eta hik nola dun izena?” esan nuen, ausentziazko denboran egoteari utzi nionean. “Margaret deitu ninduten gurasoek”.

Ordutik aurrera betikoa. Hizketaldi luzeak eta kafetxoak, afari erromantikora heldu orduko. Eta lehen afari horrek izaten du postrerik ederrera, ohea. Eta hor ere, metamorfosia. Estaltzen gaituzten azalak abandonatu eta hegoak astindu, metro karratu baten mugetan, zein txikitan miresten genituen gurasoen ohe handietan izan, hegan egitea lortzen delako.

Bizitzako une politak oroitzen ari naiz, burmuinaren txoko ezkutuenetan gordeta baititut iraganeko pasadizoak. Horiek ere, estreinakoz, metamorfosiaren menpe. Hodeiak agortzen hasi dira berriz nire gainean, ez nekien kotoia ur bihur zitekeenik. Hauek ere aldatzen dira. Baina aurrera jarraitu dut, aterkirik gabe ibili arren kale erdi-erditik oinez, diotenari, amonak esandakoari kasu, jaramon eginez. “Euriak barrena ere busti egiten dik” esaten zidan amonak, “Euriak barrena ere busti egiten dik, hik uste duana baino gehiago”.

Hirugarren eta azken bidegurutzea parez pare. Helbidea hartu dut eskuartean, eskuak bustita ditut eta jasotako euriak boligrafoaren tinta urdina papertxoan sakabanatzeari ekin dio berehala. Bere itxuraren gatibutasunetik ihes egin nahian hau ere. Ur tanta horiek dira beraren hego. Metamorfosia. “Askatasuna abstraktua duk, Martin, ez hukeen aurkituko hegoak josteko gai izan bahintz ere. Azalak abandonatzeak ez

dik ezertarako balio. Itxura da aldatzen duana. Tira, hik ahultasuna galtzen duk, baina ez duk esentziarik itxuraldatzen”. Zer bait aukeratzekotan Jainkoa aukeratu beharko nuela esango zidakeen Hiponako filosofoak, horretarako, bereziki, eman baitit hark aske izateko aukera. Helbidea desagertu da, baina tintak paperean dirau. Gogoeta nabarmen eta begi bistakoetan murgildu naiz, eta tanten umelean, eta konturatu naiz nire ibilbidearen noranzkoak baino ez duela une honetan zentzurik, diodan guztiak ez baitu zerikusirik literaturarekin, ezta filosofiarekin ere. Hogeita seigarren behebarrua. Tinta nahasi da paperean, baina ez du askatasunik. Jainkoaren aldeko hautua egin beharko luke honek ere?

Etixerik gabe eta babes bila. Jo beharreko txirrinaren zenbakiaren bila ari naizen artean, hamazazpi urte inguruko gazte bat atera da zigarro bat eskuan eta ahotik kea dariola. Presaka dabilela dirudi. Ez lioke nik adinako itxura duen ezezagun bati bere portalean sartzen utzi beharko, hala ere ez dirudi asko ardura dionik. Kea utzi du airean pausatuta, giroaren tonua lasaitzeko ahalegina egiten duena. Ni urduri nago, kontzientzia lasai. Igogailua hartu dut, hirugarren solairua zapal dezadan aurrekoak zapaldu beharrik gabe. Eta hortxe dut, muturren aurrean, helmuga. Beldurtu egiten nau bertara iristek, berriz ere txirrina jotzekotan naizela atea irekiko

didatelakoan edo. Auskalo. Ez dut birritan pentsatu nahi eta hurbiltzeaz batera jo dut txirrina. Minutu luze batez itxaron ostean ireki dit atea. Bera da, eta sorpresak izutu du. Eta maleta lurrean utzi dut. Elkarren besoek batu gaituzte segituan eta horrela egon gara, elkarri aspaldi esan gabekoak belarrira esan dizkiogun artean. “Bazuan garaia, uste nian ez hintzela itzuliko” “Behar zaitut, ama”. Eta estuago besarkatu nau. Malkoak labaintzeko gogoz, masailetan behera, nor lehenago heldu, nor bihurtu potoloago.

Eta hona, beste aldaketa bat, urteetan ez dut amaren berri izan, eta ez dakit zahartuta dagoen, edo beldarraren azal lehorraz estalitako tximeleta den. Eta nik orain argi dut zer naizen. Beldarraren azalaz libratu banaiz ere, ez diot beldar izateari utzi. Tximeleta ez bailitzateke existituko beldar izan nahian tematu izan balitz, eta ni sortu ninduen horretara itzuli naiz etorkizunera ko norabidean oinez noan bitartean. Indar gehiegi batu ditut nolabait denbora atzera egiteko. Edo atzeko denbora eguneratzeko. Iragana ekarri baitut neurekin, arrastaka. Hainbeste metamorfosi, osteria lehengoa izatera itzultzeko. Lehengo krisalidetara, neureen txokora. Hortaz, ez dakit historia errepikatu egiten den edo benetan bukatzen ote den. “Metamorfosiak tximeleten kontuak dituk”, kontzientziak. Dakidana da, aspaldiko tradizioek indarrean dirautela orain-

dik, aberatsek txanpon artean igerian jarraitzen dute, eta lapurrek gainerakoenari tiraka. Harritu egin gaitu gobernarien diru goseak, bankuen berekoikeriak. Eta hori da arraroena, azken finean espero zitekeena besterik ez baita gertatu.